a) En el caso de utilización de vivienda que sea propiedad del pagador, por el importe resultante de aplicar el 3 por ciento al valor catastral de los bienes inmuebles.

Zergaren sortzapen egunean higiezinak katastroko baliorik ez badute edo balioa ezin izan bazaio jakinarazi titularrari, katastroko balioaren ordean ondoko balio hauetatik handienaren ehuneko 50 hartuko da: Administrazioak beste zerga batzuetarako egiaztatu edo finkatu duen balioa, edo eskuraketako prezioa, kontraprestazioa edo balioa.

Ordaintzailearena ez den etxebizitza erabiltzen bada, hari dakarkion kostua, zergak eta gastuak barne. Horrela kalkulatzeko den balioa ezin da izan aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatu izan balitz kalkulatu zen balioa baino gutxiago.

Halaber, ordaintzaileak etxebizitzaren erabilerari lotutako gastuak ordaintzen baditu (ur kontsumoa, gasa, argindarra eta abarreak), gastu horiek dakarkioten kostua.

b) Ordaintzailearenak diren automobilak eta horien atoiak, ziklo-motorrak eta motozikletak, aisiarako edo ur kiroletarako itsasontziak eta aireontziak erabiltzen uzten direnean edo ematen direnean:

- Ematen badira, ordaintzaileak erosteko ordaindu duen kopurua, eragiketa kargatzen dituzten zergak barne.

- Erabiltzen uzten badira, aurreko paragrafoan aipatzen den kostuaren ehuneko 20 urteko.

- Erabiltzen utzi ondoren eman egiten badira, ematearen balorazioa egiteko kontuan hartuko da aurreko erabileraren ondoriozko balorazioa.

Garraio bide horiek, ordaintzailearenak izan gabe, erabiltzen uzten badira, ordaintzaileari dakarkioten kostua, zergak eta gastuak barne.

Aurreko kasu guztietan, ordaintzaileak ordaintzen baditu ibilgailua erabiltzeari lotutako gastuak (esaterako konponketak, erregaia, aparkaleku zerbitzua edo ordainpeko autobideak), horrek dakarkion kostua.

Ibilgailua lanerako eta helburu partikularretarako erabiltzen bada, letra honetan ezarritako arauak aplikatuta kalkulatzeko den balorazioaren ehuneko 50 izango da gauzako ordainketaren balioa.

c) Diruaren legezko korritu tasatik behera ematen diren maileguetan, balorazioa ordaindutako korrituaren eta zergaldian indarrean dagoen legezko korrituaren arteko diferentzia izango da.

d) Ordaintzailearentzako kostuaren arabera, eragiketa kargatzen duten zergak barne, ondoko errenta hauek:

- Mantenu, ostatu, bidaia eta antzekoengatik emandako diru kopuruak.

- Aseguru kontratuengatik edo antzeko kontratuengatik ordaindutako primak edo kuotak, ezertan eragotzi gabe foru arau honetako 17. artikuluko 2. idatz zatiko f), g) eta i) letretan xedatutakoa.

- Zergadunari, haren ezkontide edo izatezko bikotekideari edo haren ahaideei (ezkontza bidez edo izatezko bikotekidearen eraketaren bidez dituen ahaideak barne) ikasketak eta mantenua ordaintzeko erabilitako diru kopuruak, ezertan eragotzi gabe foru arau honetako 17. artikuluko 2. idatz zatiko d) letrean ezarritakoa.

e) Euren zenbatekoaren arabera, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek eta pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzioak, eta laneko pentsio funtsen jarduerari eta ikuskapenari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentarauan araututako enpresa sustatzaileek ordaindutako kontribuzioak, baita enpresaburuek pentsioengatik konpromisoei aurre egiteko ordaindutako zenbatekoak, Pentsio Planak eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bategineko lehenengo xedapen gehigarrian eta hura garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat. Euren zenbatekoaren arabera, halaber, enpresaburuek mendekotasun aseguruari ordaindutako diru kopuruak.

Aurreko letretan ezarritakoa gorabehera, lan etekina gauzatzeko denean eta gauza hori enpresa horren ohiko jardueraren denean, balo-

Si a la fecha de devengo del Impuesto los inmuebles carecieran de valor catastral o éste no hubiera sido notificado al titular, se tomará en sustitución del mismo el 50 por ciento del mayor de los siguientes valores: el valor comprobado o fijado por la Administración a efectos de otros tributos o el precio, contraprestación o valor de adquisición.

En el caso de utilización de una vivienda que no sea propiedad del pagador, por el coste que suponga para éste, tributos y gastos incluidos, sin que la valoración resultante pueda ser inferior a la que hubiera correspondido de haber aplicado lo dispuesto en los párrafos anteriores.

Asimismo, en aquellos supuestos en los que el pagador satisfaga los gastos derivados del uso de la vivienda, tales como consumos de agua, gas, electricidad y cualquier otro asociado a la misma, el coste que supongan para éste.

b) En el caso de utilización o entrega de vehículos automóviles de turismo y sus remolques, de ciclomotores y motocicletas, de embarcaciones o buques de recreo o de deportes náuticos y de aeronaves, propiedad del pagador:

- En el supuesto de entrega, el coste de adquisición para el pagador, incluidos los tributos que graven la operación.

- En el supuesto de uso, el 20 por ciento anual del coste a que se refiere el párrafo anterior.

- En el supuesto de uso y posterior entrega, la valoración de esta última se efectuará teniendo en cuenta la valoración resultante del uso anterior.

En el caso de la utilización de los medios de transporte señalados que no sean propiedad del pagador, por el coste que supongan para éste, tributos y gastos incluidos.

En cualquiera de los supuestos anteriores, cuando el pagador satisfaga los gastos inherentes a la utilización del vehículo, tales como, entre otros, reparaciones, combustible, servicio de aparcamiento y utilización de autopistas de peaje, el coste que suponga para éste.

Cuando la utilización del vehículo se destine para fines particulares y laborales, la retribución en especie se estimará en un 50 por ciento de la suma de la valoración resultante de la aplicación de las reglas establecidas en esta letra.

c) En los préstamos con tipos de interés inferiores al legal del dinero, la diferencia entre el interés pagado y el interés legal del dinero vigente en el período.

d) Por el coste para el pagador, incluidos los tributos que graven la operación, las siguientes rentas:

- Las prestaciones en concepto de manutención, hospedaje, viajes y similares.

- Las primas o cuotas satisfechas en virtud de contrato de seguro u otro similar, sin perjuicio de lo dispuesto en las letras f), g) e i) del apartado 2 del artículo 17 de esta Norma Foral.

- Las cantidades destinadas a satisfacer gastos de estudios y manutención de contribuyente, su cónyuge o pareja de hecho, o de otras personas ligadas al mismo por vínculo de parentesco, incluidos los afines, o los que resulten de la constitución de la pareja de hecho, sin perjuicio de lo previsto en la letra d) del apartado 2 del artículo 17 de esta Norma Foral.

e) Por su importe, las contribuciones satisfechas por los socios protectores de las entidades de previsión social voluntaria y por los promotores de planes de pensiones, y las contribuciones satisfechas por las empresas promotoras reguladas en la Directiva 2003/41/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 3 de junio de 2003, relativa a las actividades y la supervisión de fondos de pensiones de empleo, así como las cantidades satisfechas por empresarios para hacer frente a los compromisos por pensiones en los términos previstos por la Disposición Adicional Primera del texto refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones, y su normativa de desarrollo. Igualmente, por su importe, las cantidades satisfechas por empresarios a los seguros de dependencia.

No obstante lo previsto en las letras anteriores, cuando el rendimiento de trabajo en especie sea satisfecho por empresas que tengan

razioa ezin da izan ondasun, eskubide edo zerbitzu horrek jendearentzat, oro har, duen prezioa baino gutxiago.

Jendeari eskainitako prezioa Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legeko 15. artikuluan aipatzen dena izango da, deskontu arruntak edo ohikoak kenduta. Deskontu arrunt edo ohikotzat hartuko dira enpresako langileekin pareka daitezkeen beste talde batzuei eskainitako deskontuak, bai eta gauza bidezko ordainketa egitean indarrean dauden promozio deskontu orokorrak nahiz, bestela, ehuneko 15 edo urteko 1.000 euro gainditzen ez dutenak."

Sei. 67. artikulua honela geratu da:

"67. artikulua. Errentak zerga oinarri orokorrean integratzea eta konpentsatzea.

Zerga oinarri orokorra saldo hauen batura izango da:

a) Batetik, foru arau honetako 64. artikuluan aipatzen diren etekinak, jarduera ekonomikoetatik datozenak izan ezik, eta errenta egozpenak, haien artean zergaldi bakoitzean eta inolako mugarik gabe, elkarrekin integratu eta konpentsatuz ateratzen den saldoa.

b) Jarduera ekonomikoetatik datozen etekinak haien artean zergaldi bakoitzean eta inolako mugarik gabe integratu eta konpentsatuz ateratzen den saldoa. Eraitza saldo negatiboa bada, horren zenbatekoa hurrengo urteetan jarduera ekonomikoetatik lortutako etekinaren saldo positiboarekin konpentsatuko da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 24. artikuluan adierazi den bezala.

c) Ondare irabaziak eta galerak, hurrengo artikuluan jasotakoak izan ezik, soil-soilik haien artean zergaldi bakoitzean integratu eta konpentsatuz ateratzen den saldo positiboa.

Artikulu honetako c) letran aipatzen den integrazio eta konpentsazioaren eraitza saldo negatiboa bada, horren zenbatekoa artikulu honetako a) eta b) letretan jasotako errenten baturaren saldo positiboarekin konpentsatuko da, hau da, zergaldi berean lortutako saldo positiboarekin, muga izanik saldo horren ehuneko 10.

Kompentsazio hori egin eta saldo negatiboa ateratzen bada, zenbateko hori hurrengo lau urteetan zehar konpentsatuko da, artikulu honetako aurreko letretan ezarri den hurrenkera berari jarraituz.

Ondoko ekitaldi bakoitzean gehieneko kopurua konpentsatu beharko da, betiere lau urteko epealdiaren barruan, aurreko ekitaldietako ondare galerekin metatuz."

Zazpi. 88. artikuluko 1. idatz zatia honela geratu da:

"1. Zergaldian ohiko etxebizitza alokatzeagatik dirua ordaindu duten zergadunek kenkari hau aplikatu ahal izango dute: zergaldian zehar guztira ordaindutako kopuruaren ehuneko 20 (gehienez 1.600 euro urtean).

Hala ere, kontzeptu horrengatik 30 urtetik beherako zergadunek, familia ugariaren titular direnek, ezintasun iraunkor osoa, erabatekoa edo ezintasun handia onartua dutenek eta artikulu honetako 4. idatz zatian aipatzen diren zergadunek ehuneko 25eko kenkaria aplikatu ahal izango dute (gehienez 2.000 euro urtean).

Zergadunak etxebizitzaren alokairurako dirulaguntza jaso badu eta Zerga honi buruzko araudiaren aplikazioaren ondorioz dirulaguntza hori salbuetsita badago, horren zenbatekoa kendu beharko da ordaindutako diru kopuruetatik, kenkaria aplikatzeko."

Zortzi. 89. artikuluar 9. idatz zatia gehitu zaio; hona:

"9. Zergadunak etxebizitza erosteko edo zaharberritzeko dirulaguntza jaso badu eta Zerga honi buruzko araudiaren aplikazioaren ondorioz dirulaguntza hori salbuetsita badago, dirulaguntzaren zenbatekoa kendu beharko zaie aurreko idatz zatietan aipatutako diru kopuruei, artikulu honetan ezarritako kenkaria aplikatzeko."

como actividad habitual la realización de las actividades que dan lugar al mismo, la valoración no podrá ser inferior al precio ofertado al público del bien, derecho o servicio de que se trate.

Se considerará precio ofertado al público el previsto en el artículo 15 de la Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarías, deduciendo los descuentos ordinarios o comunes. Se considerarán ordinarios o comunes los descuentos que sean ofertados a otros colectivos de similares características a los trabajadores de la empresa, así como los descuentos promocionales que tengan carácter general y se encuentren en vigor en el momento de satisfacer la retribución en especie o que, en otro caso, no excedan del 15 por ciento ni de 1.000 euros anuales."

Seis. El artículo 67 queda redactado como sigue:

"Artículo 67. Integración y compensación de rentas en la base imponible general.

La base imponible general será el resultado de sumar los siguientes saldos:

a) El saldo resultante de integrar y compensar entre sí, sin limitación alguna, en cada período impositivo, los rendimientos, excepto los derivados de actividades económicas, y las imputaciones de renta a que se refiere el artículo 64 de esta Norma Foral.

b) El saldo resultante de ingresar y compensar entre sí, sin limitación alguna, en cada período impositivo, los rendimientos derivados de actividades económicas. Si el resultado arroja saldo negativo su importe se compensará con el saldo positivo de los rendimientos derivados de actividades económicas obtenidos en los años siguientes, en los términos señalados en el artículo 24 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre sociedades.

c) El saldo positivo resultante de integrar y compensar, exclusivamente entre sí, en cada período impositivo, las ganancias y pérdidas patrimoniales, excluidas las previstas en el artículo siguiente.

Si el resultado de la integración y compensación a que se refiere esta letra c) arroja saldo negativo, su importe se compensará con el saldo positivo resultante de la suma de las rentas previstas en las letras a) y b) de este artículo, obtenido en el mismo período impositivo, con el límite del 10 por ciento de dicho saldo positivo.

Si tras dicha compensación quedase saldo negativo, su importe se compensará, en los cuatro años siguientes, en el mismo orden establecido en las letras anteriores de este artículo.

La compensación deberá efectuarse en la cuantía máxima que permita cada uno de los ejercicios siguientes y sin que pueda practicarse fuera del plazo de cuatro años, mediante la acumulación a pérdidas patrimoniales de ejercicios posteriores."

Siete. El apartado 1 del artículo 88 queda redactado como sigue:

"1. Los contribuyentes que satisfagan durante el período impositivo cantidades por el alquiler de su vivienda habitual podrán aplicar una deducción del 20 por ciento de las cantidades satisfechas en el período impositivo, con un límite de deducción de 1.600 euros anuales.

No obstante, en el caso de contribuyentes que tengan una edad inferior a 30 años, o sean titulares de familia numerosa, tengan reconocida una incapacidad permanente total, absoluta o gran invalidez y aquéllos a los que se refiere el apartado 4 de este artículo, la deducción prevista en el párrafo anterior será del 25 por ciento, con un límite de deducción de 2.000 euros anuales.

A estos efectos, de las cantidades satisfechas se restará el importe de las subvenciones que el contribuyente hubiere, en su caso, recibido para el alquiler de vivienda que resulten exentas en aplicación de la normativa reguladora de este Impuesto."

Ocho. Se añade un apartado 9 al artículo 89 con la siguiente redacción:

"9. A los efectos de la deducción prevista en este artículo, de las cantidades citadas en los apartados anteriores se restará el importe de las subvenciones que el contribuyente hubiere, en su caso, recibido para la compra o rehabilitación de la vivienda que resulten exentas en aplicación de la normativa reguladora de este Impuesto."

3. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren aldaketa.

Hainbat aldaketa egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauan (2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 14. artikulua honela geratu da:

“14. artikulua. Kengarriak ez diren gastuak.

1. Ez dira zergatik ken litekeen gastutzat hartuko honako hauek:

a) Funts propioak ordaintzeko direnak.

b) Sozietateen gaineko Zerga kontabilizatuetik eratorritakoak. Kontabilizazio horretatik eratorritakoak ez dira sarreratzat hartuko.

c) Isunak, zehapen penalak eta administrazio zehapenak, bete-arazpen aldiko errekaruak eta aurretzako errekerimendurik gabe epezu kanpo aurkeztutako aitortpenengatiko errekaruak.

d) Jokoa izandako galerak.

e) Dohaintzak eta liberalitateak.

Honakoak ez dira hartuko letra honen barruan sartutakotzat: bezero edo hornitzaileekiko harreman publikoengatiko gastuak, ezta usadio eta ohituren arabera enpresako langileei dagokienez egiten direnak ere, ezta, zuzenean edo zeharbidetik, ondasunen salmenta eta zerbitzuen prestazioa sustatzekoak ere, ezta sarrerekin zerikusirik dutenak ere, hurrengo 2. idatz zatian xedatutakoa eragotzi gabe.

f) Pentsio Funts eta Planei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuak eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeen zerga araubideari buruzko foru arauak jasotako kontingentzien berdinak edo antzekoak estaltzeko horniduretarako edo barne funtsetarako zuzkidurak.

g) Erregelamenduz paradisu fiskaltzat hartutako herri edo lurraldeetan egoitza duten pertsona edo erakundeekin zuzenean edo zeharka burututako eragiketei dagozkien zerbitzuen gastuak, edo haietan egoitza duten pertsona edo erakundeen bitartez ordaintzen diren gastuak, salbu subjektu pasiboak frogatzen badu gastua benetan burututako eragiketa edo transakzio bati dagokiola.

Nazioarteko zerga gardentasuneko araubidea, foru arau honek arautua, ez zaie aplikatuko kenkaritzat hartzen ez diren gastuei dagozkien errentei.

h) Iruzurraren aurkako prebentzioa eta borroka areagotzearen zerga eta aurrekontu araudia aldatu eta finantza araudia egokitzen duen urriaren 29ko 7/2012 Legeko 7. artikuluan diruzko ordainketen mugei buruz xedatutakoa betetzen ez duten eragiketen ondoriozko gastuak.

i) Eroskeriazko emariak.

2. Aurreko idatz zatiko e) letrako bigarren paragrafoan aipatutako gastuak kengarriak izango dira, diru sarrerei lotuta dauden neurrian, zenbateko eta baldintza hauekin:

a) Harreman publikoak direla eta jatetxe, ostatu, bidai eta joan-etorrietan egiten diren gastuen ehuneko 50. Gehieneko muga, kontzeptu guztiak batera hartuta, subjektu pasiboaren eragiketen bolumenaren ehuneko 5 izango da, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean definitzen den eran.

b) Opariak eta gainerako erregaliak, betiere unitateko zenbatekoa gehienez ere 300 euro bada hartzaile eta zergaldi bakoitzeko, eta hartzailea nor den agiri bidez jasorik uzten bada. Gastu horiek aipatutako zenbatekoa gainditzen dutenean, muga horretaraino izango dira kengarriak.

3. Garraibideak erabiltzearen ondoriozko gastuei honako arauak aplikatuko zaizkie:

a) Automobilak eta horien atoiak, ziklomotorrak eta motozikletak erosi, errentatu, konpondu, mantendu edo balioa galtzearekin zerikusia duten gastuen eta ibilgailu horien erabilerari lotutako beste guztien ehuneko 50 kendu ahal izango da. Gehieneko muga izango da, batetik,

Artículo 3. Modificación de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

Con efectos para los períodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2013 se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades:

Uno. El artículo 14 queda redactado como sigue:

“Artículo 14. Gastos no deducibles.

1. No tendrán la consideración de gastos fiscalmente deducibles:

a) Los que representen una retribución de los fondos propios.

b) Los derivados de la contabilización del Impuesto sobre Sociedades. No tendrán la consideración de ingresos los procedentes de dicha contabilización.

c) Las multas y sanciones penales y administrativas, los recargos del período ejecutivo y los recargos por declaración extemporánea sin requerimiento previo.

d) Las pérdidas del juego.

e) Los donativos y liberalidades.

No se entenderán comprendidos en esta letra los gastos por relaciones públicas con clientes o proveedores, ni los que con arreglo a los usos y costumbres se efectúen con respecto al personal de la empresa, ni los realizados para promocionar, directa o indirectamente, la venta de bienes y prestación de servicios, ni los que se hallen correlacionados con los ingresos, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 2 siguiente.

f) Las dotaciones a provisiones o fondos internos para la cobertura de contingencias idénticas o análogas a las que son objeto del Real Decreto Legislativo 1/2002, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones y de las Normas Forales que regulan el régimen fiscal de las Entidades de Previsión Social Voluntaria.

g) Los gastos de servicios correspondientes a operaciones realizadas, directa o indirectamente, con personas o entidades residentes en países o territorios calificados reglamentariamente por su carácter de paraísos fiscales, o que se paguen a través de personas o entidades residentes en los mismos, excepto que el sujeto pasivo pruebe que el gasto devengado responde a una operación o transacción efectivamente realizada.

El régimen de transparencia fiscal internacional, regulado en esta Norma Foral, no resultará de aplicación a las rentas correspondientes a los gastos calificados como fiscalmente no deducibles.

h) Los gastos derivados de operaciones en las que se incumpla lo dispuesto en el artículo 7 de la Ley 7/2012, de 29 de octubre, de modificación de la normativa tributaria y presupuestaria y de adecuación de la normativa financiera para la intensificación de las actuaciones en la prevención y lucha contra el fraude, sobre limitaciones a los pagos en efectivo.

i) Los sobornos.

2. Los gastos señalados en el segundo párrafo de la letra e) del apartado anterior serán deducibles, en la medida que estén relacionados con los ingresos, en la cuantía y con los requisitos siguientes:

a) El 50 por ciento de los gastos por relaciones públicas relativos a servicios de restauración, hostelería, viajes y desplazamientos, con el límite máximo conjunto del 5 por ciento del volumen de operaciones del sujeto pasivo, tal y como se define en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Los regalos y demás obsequios siempre que el importe unitario por destinatario y período impositivo no exceda de 300 euros y quede constancia documental de la identidad del receptor. En el supuesto de que los citados gastos excedan del importe señalado, serán deducibles hasta dicha cuantía.

3. Se aplicarán las siguientes reglas en relación con los gastos derivados de la utilización de elementos de transporte:

a) Será deducible el 50 por ciento de los gastos que estén relacionados con la adquisición, arrendamiento, reparación, mantenimiento, depreciación y cualquier otro vinculado a la utilización de vehículos automóviles de turismo y sus remolques, ciclomotores y

errentamendua, lagapena edo balio galera dela eta, zenbateko hauetatik txikiena: 2.500 euro, edo zergadunak erabilitako amortizazio portzentajea bider 25.000 euro eginda ateratzen den zenbatekoaren ehuneko 50; eta bestetik, ibilgailuaren erabilerarekin zerikusia duten gainerako kontzeptuengatik, 3.000 euro, kasu guztietan ibilgailu bakoitzeko eta urteko.

Pertsona batek aldi berean erabiltzen baditu letra honetan aipatutako ibilgailu horietariko bat baino gehiago, adierazitako mugak pertsonako eta urteko aplikatuko dira, berdin dio zenbat ibilgailu erabiltzen dituen.

Ibilgailua ez bada urte osoan erabiltzen, letra honetan kenkarietaz ezarritako gehieneko mugak ibilgailua erabili den denboraren proportzioan kalkulatu dira.

Baina letra honetan aipatutako gastuen kenkariaren gehieneko muga izango da, batetik, errentamendua, lagapena edo balio galera dela eta, 5.000 euro edo zergadunak erabilitako amortizazio ehuneko bider 25.000 euro eginda ateratzen den zenbatekoaren ehuneko 50, zenbateko horietatik txikiena, eta bestetik, ibilgailuaren erabilerarekin zerikusia duten gainerako kontzeptuengatik, 6.000 euro, baldin eta, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauko 115. artikuluko 3. idatz zatian adierazitako moduan, goian azalduko muga barruan gastu osoa kengarritzat jotzea aukeratzen bada, ibilgailua erabiltzen duen pertsonari gauzako ordainsaria egotzi zaiolako, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko 62. artikuluan ezarritako arauetara jarraituz, edo subjektu pasiboak modu sinesgarrian frogatu duelako ibilgailua jarduera ekonomiko bat egiteko baino ez dela erabiltzen.

b) Kengarriak izango dira honako ibilgailu hauek erosi, errentatu, konpondu, mantendu eta balioa galtzarekin zerikusia duten gastuak eta ibilgailuon erabilerari lotutako beste gastu guztiak:

1. Salgaiak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailu mistoak.

2. Kontraprestazio bidez bidaiarien garraio zerbitzua eskaintzeko erabiltzen direnak.

3. Fabrikatzaileek probetan, saiakuntzetan, erakustaldietan edo salmenten sustapenean erabiltzen dituztenak.

4. Kontraprestazio truke gidariei eta pilotuei irakaskuntza zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen direnak.

5. Zaintza zerbitzuetan erabiltzen direnak.

6. Kontraprestazio bidezko alokairua ohiko jarduera duten erakundeek jarduera horretarako eraginkortasunez eta bakarrik erabiltzen dituzten ibilgailuak.

c) Kengarriak izango dira merkataritzako ordezkari edo agenteen laneko joan-etorrietan erabiltzen diren ibilgailuak erosi, errentatu, konpondu, mantendu eta balioa galtzarekin zerikusia duten gastuak eta ibilgailuon erabilerari lotutako beste gastu guztiak.

Baina ibilgailua erabiltzen duen pertsona foru arau honen 16. artikuluan azaltzen den moduan besteren batekin lotuta badago, idatz zati honetako a) letran ezarritakoa aplikatuko da.

d) Ez dira kengarriak izango aisiarako edo ur kiroletarako itsasontziak edo aireontziak erosi, errentatu, konpondu, mantendu edo balioa galtzarekin zerikusia duten gastuak eta ontzi horien erabilerari lotutako beste guztiak.

Aipatutako garraio bideak jarduera ekonomiko bat garatzeko soilik erabiltzen badira, aurreko paragrafoan aipatutako gastuak kengarriak izango dira zergaldi bakoitzean jarduera horrek sortutako sarreraren zenbatekoa, gehienez. Baina ez da muga hori aplikatuko subjektu pasiboak frogatzen baldin badu baditu behar adinako baliabide materialak eta giza baliabideak honako jarduera ekonomiko hau egiteko: aipatutako garraio bideak etenik gabe ustiatzea.

motocicletas, con el límite máximo, por una parte, de la cantidad menor entre 2.500 euros o el 50 por ciento del importe resultante de multiplicar el porcentaje de amortización utilizado por el sujeto pasivo por 25.000 euros, en concepto de arrendamiento, cesión o depreciación y, por otra parte, con el límite máximo de 3.000 euros por los demás conceptos relacionados con su utilización, por vehículo y año, en todos los casos.

En el supuesto de que una misma persona utilice simultáneamente más de un vehículo de los referidos en la presente letra, los límites señalados se aplicarán por persona y año, con independencia del número de vehículos que utilice.

Cuando el vehículo no se haya utilizado durante todo el año, los límites máximos de deducción a que se refiere esta letra se calcularán proporcionalmente al tiempo en que se haya utilizado el vehículo de que se trate.

No obstante, los gastos señalados en esta letra serán deducibles hasta, el límite máximo, por una parte, de la cantidad menor entre 5.000 euros o el importe resultante de multiplicar el porcentaje de amortización utilizado por el contribuyente por 25.000 euros en concepto de arrendamiento, cesión o depreciación, y, por otra parte, con el límite máximo de 6.000 euros por los demás conceptos relacionados con su utilización, cuando se ejercite la opción, en los términos señalados en el apartado 3 del artículo 115 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava, de considerar deducible la totalidad del gasto dentro de los límites expuestos, al haber sido objeto de imputación la cantidad correspondiente en concepto de retribución en especie a la persona que lo utiliza, de acuerdo con las normas establecidas en el artículo 62 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, o bien el sujeto pasivo pruebe fehacientemente su afectación exclusiva al desarrollo de una actividad económica.

b) Serán deducibles los gastos que estén relacionados con la adquisición, arrendamiento, reparación, mantenimiento, depreciación y cualquier otro vinculado a la utilización de los siguientes vehículos:

1. Los vehículos mixtos utilizados en el transporte de mercancías.

2. Los utilizados en las prestaciones de servicios de transporte de viajeros mediante contraprestación.

3. Los utilizados por sus fabricantes en la realización de pruebas, ensayos, demostraciones o en la promoción de ventas.

4. Los utilizados en la prestación de servicios de enseñanza de conductores o pilotos mediante contraprestación.

5. Los utilizados en servicios de vigilancia.

6. Los vehículos que se utilicen de forma efectiva y exclusiva en la actividad de alquiler mediante contraprestación, por entidades dedicadas con habitualidad a esta actividad.

c) Serán deducibles los gastos que estén relacionados con la adquisición, arrendamiento, reparación, mantenimiento, depreciación y cualquier otro vinculado a la utilización de los vehículos utilizados en los desplazamientos profesionales de los representantes o agentes comerciales.

No obstante, en el supuesto de que estos vehículos sean utilizados por una persona vinculada, en los términos del artículo 16 de esta Norma Foral, se aplicará lo establecido en la letra a) de este apartado.

d) No serán deducibles los gastos que estén relacionados con la adquisición, arrendamiento, reparación, mantenimiento, depreciación y cualquier otro vinculado a la utilización de embarcaciones, de buques de recreo o de deportes náuticos ni de aeronaves.

Si los citados medios de transporte se afectan exclusivamente al desarrollo de una actividad económica, serán deducibles los gastos señalados en el párrafo anterior hasta el límite máximo del importe correspondiente a los ingresos obtenidos por dicha actividad en cada período impositivo. No obstante, no será aplicable dicho límite cuando el sujeto pasivo acredite disponer de los medios materiales y humanos necesarios para el ejercicio de la actividad económica consistente en la explotación de los citados medios de transporte de forma continuada en el tiempo.

4. Dohaintza moduan emandako ondasunengatik ordaindutako zenbatekoak eta haien kontabilitate balioa kenkaritzat hartuko dira, ondasun horiek ondoko erakunde dohaintza hartzaileen helburuekin bat datozen neurrian:

- a) Lurraldeko industriak garatzeko elkarteak.
- b) Kirol federazio eta klubak, kiroleko sozietate anonimoengandik kirol jarduera ez profesionalak sustatu eta garatzeko jaso dituzten zenbatekoei dagokienean, baldin eta erakunde horien artean kirol federazio eta klub horien helburua betetzeko beharrezkoa den kontratuzko lotura kostubidezkoa sortu bada.

Idatz zati honetan aipatutako eskualdaketek ez dute hurrengo artikuluko 3. idatz zatian jasotako errenta positibo nahiz negatiborik ekarriko erakunde eskualdatzailearentzat.

5. Aurreko 1. idatz zatiko a) letran jasotakoa gorabehera, kenkariak dira ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu Legeak, zerga eta sustapen alorreko presazko neurriei eta jarduera ekonomikoaren liberalizazioari buruzkoak, 20. artikuluko lehenengo idatz zatian ezarritako baldintzak betetzen dituen partaidetza mailegu batean sortutako korrituak, finkoak izan edo aldakorak izan.”

Bi. 127. artikuluari 6. idatz zati berria erantsi zaio, eta lehengo 6. idatz zatia orain 7. idatz zatia da. Honela geratu dira:

“6. Betiere, ondasun eta eskubideak aitortu gabeko errentaren kargura eskuratutzat joko dira eta preskribatu gabe dagoen aspal-dieneko zergaldiko likidazio oinarri orokorrean sartu beharko dira, baldin eta subjektu pasiboak ez badu ezarritako epealdian bete ondasun edo eskubide horien berri emateko betebeharra, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko hemezortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen dena.

Idatz zati honetan ezarritakoa ez da aplikatuko, ordea, subjektu pasiboak frogatzen badu bere titulartasuneko ondasun edo eskubide horiek aitortutako errenten kargura eskuratu direla, edo, bestela, bera zerga honen subjektu pasibo izan ez den zergaldietan lortutako errenten kargura eskuratu direla.

7. Aurreko 1 - 6 bitarteko idatz zatietan aipatutako ondare elementuen balioa zerga oinarrian sartu bezain laster, zerga ondorio guztietarako baliozkoa izango da.”

II. TITULUA ELKARREN ARTEKO LAGUNTZA

4. artikulua. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren aldaketa.

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean aldaketa hauek egin dira:

Bat. 1. artikulua honela geratu da:

“1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.

1. Foru arau honek Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemaren printzipio eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu, eta zergen arloko foru administrazioari aplikatuko zaio.

Arabako toki erakundeei ere aplikatuko zaie, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunen arautegian ezarritakoaren arabera.

2. Foru arau honek, halaber, Zerga Administrazioaren jarduna arautzen duten printzipio eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu, Europar Batasuneko estatu kideek elkarri laguntzeari buruzko araudiaren aplikazioa dela bide, edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenen edo nazioarteko beste hitzarmen batzuen esparruan.

Foru arau honen ondorioetarako, elkarren arteko laguntzatzat joko dira laguntza, elkarlana, lankidetzeta eta antzeko ekintzak, Zerga Administrazioak Europar Batasunarekin, nazioarteko edo nazioz gairako beste erakunde batzuekin eta beste estatu batzuekin batera egiten dituenak, Europar Batasuneko estatu kideen arteko laguntzari buruzko araudiaren babesean edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmenen zein nazioarteko beste hitzarmen batzuen baitan. Elkarren

4. Serán deducibles las cantidades satisfechas y el valor contable de los bienes entregados en concepto de donación en cuanto sean aplicables a la consecución de los fines propios de las siguientes entidades donatarias:

a) Las sociedades de desarrollo industrial regional.

b) Las federaciones deportivas y los clubes deportivos, en relación a las cantidades recibidas de las sociedades anónimas deportivas para la promoción y desarrollo de actividades deportivas no profesionales, siempre que entre las referidas entidades se haya establecido un vínculo contractual oneroso necesario para la realización del objeto y finalidad de las referidas federaciones y clubes deportivos.

Las transmisiones a que se refiere este apartado no determinarán para la entidad transmitente la obtención de rentas, positivas o negativas, previstas en el apartado 3 del artículo siguiente.

5. No obstante lo previsto en la letra a) del apartado 1 anterior, serán deducibles los intereses devengados, tanto fijos como variables, de un préstamo participativo que cumpla los requisitos señalados en el apartado uno del artículo 20 del Real Decreto-ley 7/1996, de 7 de junio, sobre medidas urgentes de carácter fiscal y de fomento y liberalización de la actividad económica.”

Dos. Se introduce un nuevo apartado 6 en el artículo 127, pasando el actual apartado 6 a ser el 7, quedando los apartados 6 y 7 redactados como sigue:

“6. En todo caso, se entenderá que han sido adquiridos con cargo a renta no declarada que se imputará al período impositivo más antiguo de entre los no prescritos, los bienes y derechos respecto de los que el sujeto pasivo no hubiera cumplido, en el plazo establecido al efecto, la obligación de información a que se refiere la Disposición Adicional Decimonovena de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

No obstante, no resultará de aplicación lo previsto en este apartado cuando el sujeto pasivo acredite que los bienes y derechos cuya titularidad le corresponde han sido adquiridos con cargo a rentas declaradas o bien con cargo a rentas obtenidas en períodos impositivos respecto de los cuales no tuviese la condición de sujeto pasivo de este Impuesto.

7. El valor de los elementos patrimoniales a que se refieren los apartados 1 a 6 anteriores, en cuanto haya sido incorporado a la base imponible, será válido a todos los efectos fiscales.”

TÍTULO II ASISTENCIA MUTUA

Artículo 4. Modificación de la Norma Foral General Tributaria de Álava.

Se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava:

Uno. El artículo 1 queda redactado de la siguiente forma:

“Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.

1. La presente Norma Foral establece los principios y las normas jurídicas generales del sistema tributario del Territorio Histórico de Álava y será de aplicación a la Administración tributaria foral.

Asimismo será de aplicación a las Entidades Locales de Álava en los términos establecidos en la normativa reguladora de las Haciendas Locales de este Territorio Histórico.

2. Esta Norma Foral establece, asimismo, los principios y las normas jurídicas generales que regulan las actuaciones de la Administración tributaria por aplicación de la normativa sobre asistencia mutua entre los Estados miembros de la Unión Europea o en el marco de los convenios para evitar la doble imposición o de otros convenios internacionales.

A los efectos de esta Norma Foral, se entenderá por asistencia mutua el conjunto de acciones de asistencia, colaboración, cooperación y otras de naturaleza análoga que la Administración tributaria preste, reciba o desarrolle con la Unión Europea y otras entidades internacionales o supranacionales, y con otros Estados en virtud de la normativa sobre asistencia mutua entre los Estados miembros de la Unión Europea o en el marco de los convenios para evitar la doble

arteko laguntzak barruan hartu ahal izango du zergapekoen aurrean jarduketak egitea.”

Bi. 5. artikuluko 3. idatz zatiari bigarren paragrafoa gehitu zaio; hona testua:

“Halaber, Kontzertu Ekonomikoan xedatutakoaren arabera Foru Aldundiak zergak aplikatzeko dituen eskumenen eremuko zergapekoei dagokienaz, Foru Aldundiari dagokio elkarren arteko laguntzari buruzko araudiak zergak aplikatzeko emandako eskumenak edo araudi horren ondoriozkoak erabiltzea.”

Hiru. 26. artikuluko 2. idatz zatiko e) eta f) letrak hurrenez hurren f) eta g) letra bihurtu dira, eta e) letra erantsi da. Hona testua:

“e) Beste estatu batzuen edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakunde batzuen titulartasuneko zorrak kobratzeko eskaera jasotzen denean elkarren arteko laguntzari buruzko araudiaren babesean, betiere araudi horrek besterik adierazi ezean.”

Lau. 28. artikuluar 6. idatz zatia gehitu zaio. Hona testua:

“6. Ez da betearazpen aldiko errekar gurik sortuko beste estatu batzuen edo nazioarteko zein nazioz gaindiko beste erakunde batzuen titulartasuneko zorren kasuan, elkarren arteko laguntzaren esparruan zerga bilketan jarduten dutenean, betiere laguntza horri buruzko araudian besterik adierazi ezean.”

Bost. II. tituluko I. kapituluko 3. atalari 6. azpiatal berria gehitu zaio, 29 bis artikulua osatua. Hona testua:

“6. AZPIATALA
ZERGA BETEBEHARRAK ELKARREN ARTEKO
LAGUNTZAREN ESPARRUAN

29 bis artikulua. Zerga betebeharrak elkarren arteko laguntzaren esparruan.

Zerga betebeharrak dira elkarren arteko laguntzari buruzko arauditik sortzen direnak. Zergapekoek betebehar horiek betetzen ez badituzte, araudi aplikagarrian ezarritako zerga arloko zehapenak jarri ahal izango dira.”

Sei. 35. artikuluar 5. idatz zati berria gehitu ziaio, eta hemendik aurrera lehengo 5. idatz zatia 6. idatz zatia izango da; hona testua:

“5. Zergapekotzat joko dira, halaber, elkarren arteko laguntzari buruzko araudiari jarraituz zerga betebeharrak ezarri ahal zaizkien guztiak.”

Zazpi. 46. artikuluko 6. idatz zatia honela geratu da:

“6. Baldin eta, foru arau honetako 35. artikuluko 6. idatz zatian ezarri den bezala, zerga betebehar batean titular bat baino gehiago badago, ordezkaritza nornahik duela pentsatuko da, berriaz bat izendatu ezean.”

Zortzi. 61. artikuluko 6., 7. eta 8. idatz zatiak aurrerantzean 7., 8. eta 9. idatz zatiak izango dira hurrenez hurren; 6. idatz zatiaren testua hauxe izango da:

“6. Elkarren arteko laguntzaren esparruan zerga bilketan diharduten beste estatu batzuen edo beste nazioarteko zein nazioz gaindiko erakunde batzuen titulartasuneko zorrak ordaintzeko eskatuko zaio zergapekoari, eta honako epealdi hauetan ordaindu beharko du:

a) Betearazpen tresna hilaren 1etik 15era bitartean jakinarazten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hilaren 20ra arte; 20a balioduna ez bada, aldia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

b) Betearazpen tresna hilaren 16tik azken egunera bitartean jakinarazten bada, jakinarazpena jasotzen den egunetik hurrengo hilaren 5era arte; 5a balioduna ez bada, aldia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Aurrekoa gorabehera, elkarren arteko laguntzari buruzko arauak bidea ematen duen kasuetan, Zerga Administrazioak zerga bilketako jarduketak burutu ahal izango ditu estatu edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakunde eskatzailearen kobrantza eskaera jasotzen duenetik

imposición o de otros convenios internacionales. La asistencia mutua podrá comprender la realización de actuaciones ante obligados tributarios.”

Dos. Se añade un segundo párrafo al apartado 3 del artículo 5 con la siguiente redacción:

“Igualmente, en relación con los obligados tributarios sometidos a las competencias de aplicación de los tributos de la Diputación Foral en virtud de lo dispuesto en el Concierto Económico, corresponde a ésta el ejercicio de las competencias en materia de aplicación de los tributos derivadas o atribuidas por la normativa sobre asistencia mutua.”

Tres. Las actuales letras e) y f) del apartado 2 del artículo 26 pasan a ser las letras f) y g) respectivamente y se introduce una letra e) con la siguiente redacción:

“e) Cuando se reciba una petición de cobro de deudas de titularidad de otros Estados o de entidades internacionales o supranacionales conforme a la normativa sobre asistencia mutua, salvo que dicha normativa establezca otra cosa.”

Cuatro. Se añade un nuevo apartado 6 al artículo 28 con la siguiente redacción:

“6. No se devengarán los recargos del período ejecutivo en el caso de deudas de titularidad de otros Estados o de entidades internacionales o supranacionales cuya actuación recaudatoria se realice en el marco de la asistencia mutua, salvo que la normativa sobre dicha asistencia establezca otra cosa.”

Cinco. Se introduce una nueva Subsección 6ª, dentro del Título II, Capítulo I, Sección 3ª, compuesta por el artículo 29 bis con la siguiente redacción:

“SUBSECCIÓN 6ª
OBLIGACIONES TRIBUTARIAS EN EL MARCO
DE LA ASISTENCIA MUTUA

Artículo 29 bis. Obligaciones tributarias en el marco de la asistencia mutua.

Son obligaciones tributarias aquéllas que deriven de la normativa sobre asistencia mutua. En el caso de su incumplimiento por los obligados tributarios, podrán imponerse las sanciones tributarias establecidas en la normativa aplicable.”

Seis. El apartado 5 del artículo 35 pasa a ser el apartado 6 y se introduce un nuevo apartado 5 con la siguiente redacción:

“5. También tendrán la consideración de obligados tributarios aquéllos a los que se pueda imponer obligaciones tributarias conforme a la normativa sobre asistencia mutua.”

Siete. El apartado 6 del artículo 46 queda redactado como sigue:

“6. Cuando, de acuerdo con lo previsto en el apartado 6 del artículo 35 de esta Norma Foral concurren varios titulares en una misma obligación tributaria, se presumirá otorgada la representación a cualquiera de ellos, salvo que se produzca designación expresa.”

Ocho. Los apartados 6, 7 y 8 del artículo 61 pasan a ser los apartados 7, 8 y 9 respectivamente y el apartado 6 queda redactado como sigue:

“6. El pago de las deudas de titularidad de otros Estados o entidades internacionales o supranacionales cuya actuación recaudatoria se realice en el marco de la asistencia mutua será requerido al obligado tributario, que deberá efectuarlo en los siguientes plazos:

a) Si la notificación del instrumento de ejecución se realiza entre los días 1 y 15 de cada mes, desde la fecha de recepción de la notificación hasta el día 20 de dicho mes o, si éste no fuera hábil, hasta el inmediato hábil siguiente.

b) Si la notificación del instrumento de ejecución se realiza entre los días 16 y último de cada mes, desde la fecha de recepción de la notificación hasta el día 5 del mes siguiente o, si éste no fuera hábil, hasta el inmediato hábil siguiente.

